



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2020KO MAIATZAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2020ko maiatzaren 28an arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** M Mar Ansorena, Olatz Dorai, Ricardo Arangoa, Xabier Azpiroz, Santos Etxegia eta Julen Beunza

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.-Aurreko batzarreko akta onartzea.**

Emailer bidalitako apirilaren 30eko batzarreko akta onartzen dute bildutakoek aho batez.

#### **2.-Alkate ebazpenak.**

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2020/20 alkate ebazpena apirilaren 27koa onartuz Sasoi Eraikuntzak empresak egindako eskaera 2015. Urtean, Jauntsaratsko kaleen zolaketa obraren esleipenerako, jarritako abala itzultzeko, abala 5.314 eurokoa izanik.
- 2020/21 alkate ebazpena apirilaren 27koa onartuz Obysur empresak aurkeztutako aurrekontua 5.827,50 eurokoa BEZ kanpo, Berueteko bidegurutzean, Jauntsaratsko eskolan eta Aizarotzko zeharbidean zolatze lanak egiteko.

- 2020/22 alkate ebazpena apirilaren 30ekoa onartuz Felix Beunzarii obra baimena ematea lhabengo 3. Poligonoko 14. lursailean kanpoko argi indarraren instalazioa aldatzea, obra hau egiteko aurrekontua 650 eurokoa da

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

### **3.- Biztanleri kopuruaren onespena.**

Alkateak adierazten du, 2020ko urtarrilaren 1eko datarekin biztanleen kopurua 828 zela, horietatik 467 gizonak ziren eta 361 emakumeak. Aipatzen du azken urteetan jeitsiera nabaria dela populazioan, duela bi urte 840 biztanle ziren Basaburuan.

Xabier Azpirozek azaltzen du azken 8 urtetan 900 biztanletik behera doala populazio kopurua. Aizarotz sortu zenean izan zen populazio kopuru altuena eta hortik jeitsiera iza da.

Santos Etxegiak aipatzen du hau kontutan hartzekoa dela despopulazioarako ateratzen diren diru laguntza deialdietan.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea 2020ko urtarrilaren 1eko datarekin Basaburuko udalerriko biztanleri kopurua 828 pertsonen osatzen dutena, horietatik 467 gizonak ziren eta 361 emakumeak.**
- **Erabaki hau INE ra jakinarazi.**
- 

### **4.- Langabetuen kontratazioa 2020.**

Alkateak azaltzen du udako langabetuak kontratatzeke epea ireki dela maiatzaren 31a arte. Igandea izanik astelehenean bukatuko zen epea. Bandoan 4 pertsona kontratatuko direla adierazten da 3 hilabeteko epean jardunaldi osoz, proiektua aurreko urteetako bera izanen da, xendak eta bideak garbitu, herrietako elementu turistikoak garbitu eta konpondu, eskolako patioan konponketak eta abar...

Azalpenen ondoren eta diru laguntza deialdiak eskatzen duen arabera, bildutakoek onartzen dute ondoren zehazten den akordioa:

**Onartu 2020ko langabetuen kontratazioa, 4 pertsona kontratatuko dira 3 hilabetetarako jardunaldi osoan.**

-Onartu diru laguntza eskatzeko memoria eta dokumentazioa eta diru laguntzaren tramitazioari hasiera ematea.

- Erabaki hau Nafarroako Enplegu Zerbitzura jakinarazi diru laguntzaren dokumentazioarekin batera.

#### **4.-Moziok.**

Ez dago moziorik.

#### **5.- Batzordeen informazioa.**

##### **Euskara Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Uemaren jarraipen batzordea bildu da, kudeaketa plana aztertzeko, zer egin den zer falta den egiteko zehaztuz.

UEMA, udaleko 10 hornitzaileekin laketa bat egingen du fakturak eta bestelako dokumentazioa euskaraz bidaltzea bermatzeko.

##### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

1.sektoareren proiektuaren baitan zonaldeko ekoizleekin bilera egin da, elkare moduan la egiteko asmoa dago Leitzan hasi dira egitasmo horrekin. Hurrengo astean bilera egingen da Imotz, Basaburua eta Atetzen.

##### **Ogasun Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Ordaindu ziren fakturen artean, azpimarratzeko, industrialgunearen memoria egitearen lanak, Obysur empresaren faktura, Berueteko bide gurutzean eta Jaunsaratsko ur honiduran egindako lanengatik eta Aizarotzko epaitzen faktura Arpanak bidalitakoa.

##### **Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Ttikiena haur eskolaren matrikula epea irekia dago maitzaren 25etik ekainaren 5era. Aurreko ikasturtetik 2 ume geldituko dira ikasturte honetan eta beste familia batek egin du jada matrikula, zalantzak 3 familia daude momentuz. Gehienez 6 ume egonen ziren aurten haur eskolan eta eskola bermatzeko gutxienez 6 ume behar dira. Helburu ez bada lortzen hezkuntzarekin hitzegin beharko da gastuaren finantzaketaren inguruan.

#### **6.- Informazio orokorra.**

- Kontsultategiko sarbidea berritzeko dirulaguntza eskatu zen osasun departamentura eta aurrekontu faltagatik ez dute onartu.

## **7.-Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:30 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.